

Aitita-ordiaren lenengo ipuñña

Bustintz'd'ar Errose'k

TXIKITAN be, ipuin zale-zalia nintzan; eta zaletasun begiko ori zala-ta, ipuin politen bat nun eta zelan entzungo, artega samar ibiltzen nintzan. Ikastolara juaten nintzanetan, neure laguntxueri sarritan be sarritan, ixilmixika esaten neutzoen: "Gaur, zelako ipuñak dakazuez ba?" "Aitita-amamak bart zer edestu dautzue ba?" Ta beriala, neure laguntxuak, itaun orreri egokiro erantzunaz, sekulako ipuin politik edestuten eustiezan.

Nik baña, tamalez, neure aitita-amamak egundo ezagutu enebazalako, neure adizkide ta laguneri ipuin askorik ezin ixaten neutzoen edestu. Nire gurasuen gurasuak ni ludiratu orduko bestalderatu ziralako, euren aboetatik ezertxu be entzuteko zorijonik ez neban ixan... Ori barriz, zoritxar anditzat neban. Eta zoritxar ori gogoan nebalarik, lagun-artian bein baño geyagotan esan ixan neban: "Neure aitita-amamak bixi balira orraitik, a zelako ipuñak edestuko neukezan!" Eta ori esaten neban bakotzian neurebegitxuak malko-garratzez ezotuten ziran. Olakoxe ipuin zale errimia nintzan!

Ganeko egun baten, esanikoitzak buruan nebazalarik, neure barruan asmu berezi gozua sortu zan; eta

asmu gozo orren altzuen, zelan be enekijala, neure ipuin-egarrija asetuteko, erriko atso-aguraen arritian aitita-amamak bat billatutia erabagi neban.

Ain zuzen be, urrengo igandian, amarretako meza nagosi-ostian, aguretxu zar bat, larogei urteren zama astuna bizkarrian ebalarik, oin narrazka etxerantza joyala ikusi neban. Agure ori, errijan, "Baltzuntze" basetxian bixi zalako, "Baltzuntze'ko Andolin" ixenagaz ondoen ezagutzen zan. Ondo gixon ona ta zintzua bera!... Basatxe zar aretan bere emaztia ta bera, beti donokira begira bixi ziralako esaten eben. On-onak ziran bai!...

Eta igande aretan neure asmua ta zaletasuna betetutiarren, Andolin agurgarrijari, geldiro geldiro atzetik jarraitu neutzoen; eta bere ondora eldutian, neure aitita ixatian gura ete eban itandu neutzon; eta ori entzutian, Andolin ononak, neure aitita poz-pozik ixango zala, barreka esan eustan. Orduan nik, olan ixan ezkeri, igande guztietan etxerantza lagunduko neutzola esan neutzoen, begijak be erdi-itsutubak eukozalata; orretarako bana beriala baldintza polit ba iminteko azartasuna ixan neban. Igande guztijetan ipuin bat edo beste edestu biarko

eustala esan neutzon. Eta agure agurgarri ta onak baldintza ori onez artuta neure gurarija pozpozez betetuko ebala esan eustan; ganera barriz, lantzian-bein, kerekak, sagarrak eta intxaurrak eta abar, emongo eustazala be esan eustan. Orduko nire poza! Ene! Eztibitzetan saltuka!...

Gerutxuako nik barriz, bere itzakaz jaubetuaz, antxe bertan ipuintxu bat edestuteko arren egin neutzon; eta beste barik Andolin aguriaren abotik ipuin polit-polita urten zan. Ona emen:

“Bein baten, Garoste menditik Urkilleta’ ko gixon bat burdibide egurregaz etxerantza etorri zan; eta gixon ori, negurako egur ederra pillatu ebala ta, bidian pozpozez etorran. Onetan, burdi-txirringa batek lupetzan laprask egin ebalako, burdija itzuli egin zan. Ori ikusita, Urkilleta’ko, goyak eta beyak aitatuta, asarren-bitzetan birau ikeragarri bat jaurtin eban. Orduan Itsuerreka - aldetik adar-buztendun txerren bildurgarriak agertu ziran; eta txerren adaroker arek Urkilleta gixona atzealderetik burduntzi gorrija sartzen autzoelarik, bere burdi ta idi ta guzti Artzate’ko labarra gora aye-na batzen eroanda Akelarre - kottxuntxurrera eroan eben eta geyago gixon biraularijaren aztarrenik iñok egundo ezaban ikusi.

Txerren bildurgarriak euren soin baltzak jake-luze gorrijakaz eztalduten ei-ebezan; eta euren onetan burdiñazko oski gogorak ei-eukoezan.”

Agure zarraren ipuña entzutian, poz gozo-gozoa barruan ganezka nebalarik une-atan ludijan zoruntsuena neu nintzala uste ixan neban; eta uste atsegingarri orrekaz ezin geyagoan poztuta, aguretxuari eskuan mun-egiñaz agur egiñkuan, neure etxera pozez beterik juan nintzan.

Eta bijaramonian, ikastolaratutiagaz batian ipuintxua irakaslemiari ta neure laguntxueri aritkimamira edestu neutzoen; baita “Baltzuntze’ko Andolin’egaz egin neban izketalditxuaren barri be ziets-ziets emon neutzoen. Orduan, ikaslemiak errukitsua ta ona ixateki ta zarrari esanda, idaztiño polit bat emon eustan. Ain bezuz polita eskuratzian bijotz - ikutze gozoa ixan neban; eta neure begijak malkoz ezotuta nebazalarik, bere aolkuak onez artuten nebazala ta esanak osuan betetuko nebazala esan neutzoen.

Esan eta egin aurrerantzaki igande guztijetan meza nagosi-ostian “Baltzuntze”ko aguriari “aitita” aboa betian esanaz etxera gogo - onez laguntzen neutzoen, naiz ta laguntxuakaz jolasian ibilli, guztija itxita aititagana juaten nintzan. Geroago barriz, erriko atso-agure guztijakaz aizkide andi egin nintzan. Eurekandik barriz amaikatxu gauza on eta eder entzun ixan nebazan! Zenbat esakun eta aolku onuratsu!... Jaungoikona!...

“Zarraren esana gaztiaren zentzuna.”

